

Txakurren hizkuntza

Behin batean Konde batek seme bat zeukan. Semea kokolo hutsa zen, ez zuen ezer ikasten. Ezin zuen.

Aitak hirira bidali zuen semea, irakasle partikular batengana, ea horrela zerbait lortzen zuen.

Semea hiritik itzultzerakoan aitak galdetu zion:

- *"Zer? Ikasi al duzu zerbait?"*
- *"Baaai! Txorien hizkuntza ikasi dut".*
- *"Nola? Txorien hizkuntza? Zoaz, zoaz etorri zaren bidetik!"*

Semeak beste urte bete egin zuen hirian. Oraingoan beste irakasle baten menpe. Urtea iragandakoan, gaztea berriz ere etxera.

- *"Aspaldiko! Zer? Aurten etzara txio-txioka etorriko, ez?"*
- *"Ez. Aurten, krua-krua, igelen hizkuntza ikasi dut."*
- *"Nola? Igelen hizkuntza? Ahhh! Beitu, azkenengo aukera emango dizut. Beste urte bete alferrik galtzen baduzu ez niri aita deitu."*

Etorri zen mutila hirugarren urtean eta badakizue nola agurtu zuen aita: Gua, guau!

- *"Hori besterik ez genuen behar. Orain txakurren hizkuntza!"*

Kondea sutan zegoen eta etxetik bota zuen semea:

- *"Alde hemendik, ez zaitut berriro ikusi nahi!"*

Gaztea basorik baso ibili zen eta halako batean gaztelu batera iritsi zen. Gazteluaren ondoan dorre garai bat zegoen eta zaunka hots izugarriak irteten ziren handik. Gaua gazteluan pasatzeko baimena eskatu zion gazteak etxeko nagusiari.

- "Gaua hemen pasatu? Bai, dorrean nahi baduzu. Baina kontuz hango txakur basatiekin, oso arriskutsuak dira eta.. Listo ez bazabiltza jan egingo zaituzte".

Gazteak gau osoa eman zuen dorrean txakurrekin hizketan eta hurrengo egunean nagusia harrituta, gaztea bizirik zegoela ikusirik.

-*"Jauna"* -esan zion gazteak- *"jakin dut zergatik egiten duten txakurrek horrenbeste zaunka. Altxor bat gordetzen dutelako. Nola aurkitu ere esan didate"*.

Sineskaitza zen, baina badaezpaere nagusiak:

- *"Altxorra aurkitu eta txakurrak dorretik bota ezker, neure alabarekin ezkontzen utziko dizut"*.

Gaztea dorrera joan eta altxorraren bila hasi zen. Txakurrak ere han hasi ziren azterka. Berehala kutxa eder bat agertu zen, urrez eta zilarrez betetakoa. Gazteak aurkitutako guztia eraman zuen gaztelura eta txakurrek hanka egin zuten. Harrezkero gaztea oso aberatsa da eta gazteluko nagusiak agindutakoa bete zuen: alabarekin ezkontzeko baimena eman zion.

